

ustea asmo nagitik irten, ernatze bizitsuan sartu, ta asiyera oindun ta ibil-lariyan dijuakiyon erriyaren gloriya.... ¡O zeñ glori jator, berebere, garbi, ta garaya!

AGER-KAYAK=NOTAS

- (68) *Diccionario...* etc., pág. 196.
 (69) Claudium IV, Consulotu Honorii, v. 508.
 (70) *Diccionario....* etc., pág. 377.
 (71) *Ekin-laria*, «amigo de arremeter, emprendedor».

MIGEL A. IÑARRA-K.

(Aurrandetuko da)

LA LENGUA EUSKARA EN EL PÚLPITO

Honramos nuestras páginas con el siguiente magnífico exordio del sermón predicado la noche del 6 de Febrero último en la parroquia del Buen Pastor por el elocuente orador bascongado, nuestro respetable amigo y colaborador D. Alfonso M.^a de Zabala.

«Gaur arratsean N. K. M. nai dizuet itz egin euskeraz errosario santuaren debozioaren gañean, eta deizkiot geyenai ez zaitutela gaizki irudituko. Eta ez da izango lenengo aldiz ala egitea: nola illaren lenengo igandea guztietan igotzen naizen eta Jaungoikoak ondo banau, eta Parroko jaunak agindu diralako, igo bear detan leku santu onetara, errosarioko kofradeak egiten dezuten funzio onetan itzaldi labur bat egitera, artu det asmoa, aldizka, igande batean euskeraz eta bestean gaztelaniz predikatzea.

Eta, ¡ojala sarriagotan predikatuko balitz gure euskera eder eta garbian! Au da gure gurasoen itzkuntz zoragarria; au da guk lenengo entzun genduena. Gure amaák, euskerazko kantu gozoak kantatuaz lo eragiten ziguten euren magalean edo siaska garbieten; gure gurasoak euskeraz errezatzen zituzten euren erreguak; guk euskeraz, begiak zeruronz jasorik eta gere eskuchoak tollestatuak zuzendu giñion lenen-

go otoiz edo erregua euskaldunen Jaungoikoari; guk ikasi ginduzen lenengo itzak izan ziran euskerazkoak: *aitacho*, *amacho*: ¿baditeke izen ez-titsu eta gozoagorik? gure gurasoak ezkontzaren bidez alkartu ziranean, euskeraz eman zioten alkarri onetarako baimena; eta guraso on oek ill baño lenago, zeruratu baño lenago, euskeraz egin ziguten azken agurra: «agur nere umeak, Josapateko zelaya arte, zeruan alkar ekusiko degu», esan ziguten, «izan zaitezte onetarako beti kristau onak eta euskera zaleak».... ¿Zergatik ez degu itz egin bear bada euskeraz? Lotsaz, menturaz?.... ¿Lotsatu euskeraz itz egitia?.... ¿Zergatik ez degu itz egin bear euskeraz? Aiztu zaigulako? ¿Aaztutzen utzi diogulako? Euskaldunak, ¿ainbesterañokoa da gure esker beltza gure ama euskerarekin?

Eta iñon bada ta, ¿nun arrazoi geyagorekin itz egin bearda euskeraz eliza onetan baño? Aspaldian euskal-errian, euskaldunak euren kostuz egin duten eliz eder eta galai onetan baño? Euskalduna da eliz onen plana atera duan maisua; euskaldunak dira emengo apaiz beneragarriak; euskaldunak emen lan egin duten arotz eta argiñak: euskal-erriko arrobietatik atera dira emengo ar-marmol ederrak; euskal-erriko zaldun noblea da aldare nagusi ori erregalatu duana; euskal erriko pamili ospatsuak dira beste aldare polit oyek eman dituztenak; euskal-erriko artista abill pulpito galai au egin eta jaco duana; euskal-erriko dama bertutetsuak apaiz jantziak ekarri eta josi dituztenak, dena karidadez, dena limosnaz. Baldin eliz onetan euskeraz itz egin bear ez bada ¿non egin bearda? ¡A! Baldin eliz onetan maiz euskeraz itz egingo ezbalitz, zimenduetatik asita dorre gañerañoko arriak eurek alchako lirake gure kontra zeren gure itzkuntza estimatzen ez degun; gure guraso zarrak alchako lirake euren obietatik damuz eta penaz beterik, zeren aek erakutsiritako euskera ederra maite ez degun.

Itz egin dezagun bada Aitorrek erakutsi zigun itzkuntz miragarri onetan! itz egindezagun menturaz munduan itz egiten dan itzkuntzarik zarrenean; itz egindezagun askoren iritzian Adan ta Ebak paradisuan itz egintzuten itzkuntz Jaungoikoak erakutsitakoan, itz egindezagun ez blasfemirik, ez biraurik, ez maldizio zatarrak ezin esan ditekian itzkuntz zerutitakoan. Eta itz egin dezagun gure Elizetan, gure karriketean, gure plazaetan, gure baserrietan, gure pamilietan. Euskeraz itz egin bezate apaizak eta erlijiosoak, aberatsak eta pobreak, nekazariak eta ichas-gizonak, euskaldunen izenarekin onratu nai duten guziak. Errezatu bedi euskeraz, izkribatu bedi euskeraz, kantatu bedi euskeraz,

eta euskerazko soñu politetan, eta ez gaztelaniz eta gaztelauen soñu nabarmenetan. Eskola maisuak izan bitez euskaldunak, errietako mediku, botikario, eskribau eta letraduak izan bitez euskaldunak. Eta euskeraz erakutsi bezaye umeai eskola, dotriña eta beste erakusgayak; zeren ainbesteraño iraungo du Euskal-erriak, zenbaiteraño irauten duan euskerak. Gogoratu zaitezte, euskal-erriko mendiak gorrituak daudela odolez, eta odol au dala gure guraso zarrak išuri zutena erlijioaren eta euskeraren alde. Eta sinisnazazute azkenik, aitutzen bada euskera, aitu dala Euskal-erria.

Eta itz aurre au geyegi luzatu ez dezadan, esatera noakizue itzaldi onen gaya,» etc., etc.

AMA BATEN PENAK

¿Eskuchotik eldu ta eskalletan bera,
pastel bana emanta
etzera atera,
nere Julitarekiñ
lenago kalera
eskolik ezdalako
anchen jostatzera?
¿Non dezu aizpachua?
(non ibildu zera?...
¿eztakizula non dan
esanaz onera
zatoz zure amaren
begiyen aurrerá?
¿Jesús amoriyua
¿Jesús biyotz beera,
zu nere doloriaz
kupitzen bazera,
¿arren bildu nazazu
aurchua echera!

—Amacho, ¿nola beste
denda aundiyartan,
amoñakiñ goñuak
genituben *ñan-ñan*?
¿Ez aldaki amacho
nola izan giñan....
chupatzekuak ere
badira bada an?
—¿Non ene, non!
—Eztaki,
Piakiñ lenguan,
pastel aundi bat nola
ikusi genduan?
—A! bai; Pepaenian;
¿zer gauzak goguan
ume berrichu onek
gordetzen dituan.
¿Eta zer?
—Anitacho
aizparen kontuan,